

horrela harriaren barnean nire ahots sekretuak  
irteteari uko egiten dio estatuak maitatua ez bada  
ni harria mendian  
eskenatoki konikoaren oinetan errekarri  
estatuak askatzeari oldartzen natzaio  
barne fruta-arbola  
monotonoa eta antzinakoa  
nire eskuaren sabelekoa  
nire ezin zaurituzko harriaren biribila da  
nire argi biribilaren oturuntza da  
harri oro horrela sagaratua  
denbora preso gordetzen duenez  
Jaikoaren hutsarte nirea da  
ni naiz mintzo dena

*Jorge Oteizaren*  
*“Uharte apur bat iristen zait zapatetara”*  
*poemaren zati bat*

jada naiz estatuazkoa mozolo mugigaitz hau  
eta ez dut begiratzen  
jada ez dut begiratzen  
nire begi ireki eta harrizkoez betirako  
hilko naiz eta hor teilatuaren gainean  
segituko du mozoloak  
nitaz galdetuko bazenute  
begira egongo natzaizue ni

*Jorge Oteizaren*  
*“Requiema zerura itzuli nahi izan ez*  
*zuen aingeru batengatik”*  
*poemaren zati bat*